

- FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

- Baliabide fisikoak: produktuaren muntaketarako beharrezkoak diren piezak gordetzeko eta, aldi berean, muntaketa egiteko lantegi bat izatea beharrezkoa da. Gainera, bulego bat behar dugu, negozioren kudeaketa bertan aurrera eramateko. Bulegoan ordenagailua izatea funtsezkoa da, gure enpresaren webgunea nahiz sare sozialak kudeatzeko. Ordenagailuaz gain, telefona izan behar dugu, bai hornitzaileekin, bai bezeroekin harremanetan egiteko. Bulegoa nahiz lantegirako altzariak beharrezkoak dira, lehengaiak eta bulegoko materiala gordetzeko eta antolatzeko. Azkenik, makineria beharrezkoa da, produkturen muntaketa aurrera eramateko.
- Baliabide intelektualak eta giza baliabideak: Ainhoak dauzkan informatikako eta aldi berean, webguneak diseinatzeko ezagutzak, gure webgunea aurrera eramateko lagungarria izango da. Iratik kudeaketarako daukan abilezia kontuan hartuz, fabrikazio prozesuaren arduraduna izango da. Goizanek pertsonekin haritzeko duen gaitasuna dela eta, zerbitzu pertsonalizatua aurrera eramango du. Izan ere, Anek dauzkan salmentarako eta antolatzeko abileziak, salmenten sailean aplikatuko ditu. Azkenik, Ikernek duen sormena kontuan hartuz, produktuaren diseinuaren arduraduna izateko balio izango du.
- Finantza- baliabideak: enpresa sortzeko kapitalaren %60 aurrezkietatik dator eta %40 banku bati eskatutako mailegutik.

Gure enpresako funtsezko baliabide bat bi kanpoko enpresek egiten dute, plastikoa eraldatzen duen enpresa, Egutegui Recicladados S.L.U, eta gurpilak egiten duen enpresa, Pedruzo. Modu horretan kostuak merkatzen dira, guk hauek eraldatu eta ekoitzi egin ordez.

